



Hezkuntzako 2. hizkuntza-eskakizuna (HE2)

Zer da HE2?

Hezkuntzako HE2 hizkuntza-eskakizunak euskara, harreman-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza moduan ere erabiltzea bermatzen du, bereziki euskara edo euskaraz irakatsi behar den lanpostuetan (ikus 47/1993 Dekretua, apirilaren 2ko EHAAn).

HE2k ba al du baliokiderik?

Bai. EGA agiria Hezkuntzako HE2ren baliokidea da. Era berean, EGaren baliokide guztiak ere HE2ren baliokide dira, esaterako Euskal Autonomia Erkidegoko eta Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizialetan gaitututako euskarako 5. maila edo Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 3. hizkuntza-eskakizuna.

Noiz dira azterketa-deialdiak?

Hezkuntzarako oposizioak deitzen direnean, hizkuntza-eskakizunen deialdi irekia ere egiten da. Horrez gain, IRALE programan liberatuta dauden irakasleek eta hezkuntza-langileek deialdi itxian parte har dezakete. Azkenik, urteroko deialdi irekia ere badago, irakasle eta hezkuntza-langileentzat. Matrikulatzeko epea urtarril aldera izan ohi da.

Nolakoak dira azterketak?

Hiru proba daude, egun desberdinetan:

- Atariko Proba: aukera anitzeko galderaz osatua dago.
- Proba Idatzia: irakurmen-ariketa eta bi idazlan ditu.
- Ahozko Proba: epaimahaiaren aurrean mintzatu behar da.